

(“Etxe hutsa”, Antón Garikanok euskaratua)

Badakizue (hasi zen Theodor), joan den uda osoa ***n igaro nuela. Bertan aurkitu nuen aspaldiko lagun eta ezagun mordoskak, bizitza erosoak, arte eta zientzietarako etengabeko bizitasunak, horrek denak gogotik eragin zidan. Inoiz ez naiz gusturago sentitu eta irrikaz heldu nion nire aspaldiko joerari: kalean barrena bakarrik paseatzen noalarik, zintzilik jarritako kobrezko grabatu eta iragarkiei atseginez erreparatzea, edo bidean egokitutako pertsonak aztertu eta nire artean zenbaiten horoskopoa ipintzea; izan ere, arte eta luxuzko erakusgaien aberastasunak ezezik, egoitza apain, oparo haiek ikusteak ere horretara bultzatzen ninduen.

Tankera hartako egoitzez inguratutako abenida, *** ateraino doana, topagune nagusia da bizitzako plazer finenak damatzen dituzten hiritar gorenentzat, nahiz maila nahiz aberastasunagatik. Jauregi altu, nasaien behe-solairuan luxuzko salgaiak eskaini ohi dira gehienetan, eta goiko pisuetan berriz, arestian aipatu jendea bizi da. Ostaturik prestuenak kale honetan daude, atzerriko ordezkariak ere hantxe bizi ohi dira, eta beraz, kontu egingo duzue, hiriburuan beste inon baino joan-etorri bereziagoa ageri da bertan, berez dagoena baino populazio ugariagoaren itxura emanaz. Leku honetarako grinaren ondorioz beharrak agindu baino bizileku ttikiagotan etsitzen du zenbaitek, eta hartara familia batzuen etxeak erlategien antzekoak dira.

Askotan ibilia nintzen abenida hartatik zehar, halako batean etxe bat begiz jo nuenean, gainerako guztietatik oso modu harrigarri eta bitxian bereizten zena. Pentsa ezazue etxe baxu batean, lau leihorekin zabalean, bi egoitza eder alturen arrear itota eta lehen pisua ozta-ozta daukalarik aldameneko etxeen behe solairuko leihoa baino goraxeago. Teilatu gutti zaindua, tarteka paperez estalitako leihoak eta horma uherrak jabearen utzikeriaren seinale ziren. Pentsa ezazue zenbat nabarmentzen zen etxe hura, luxurik finenaz apaindutako egoitza dotore haien artean.

Gelditu eta hurbilagoetik begiratu ondoren, leiho guztiak okertuta zeudela ohartu nintzen, behe solairuko leiho aurrean horma zegoela eraikia, sarrerarako ere bai jo zuen saihets ate nagusian ez zegoela ezkilarik eta ezta inolako sarraila edo krisketarik ere agerian. Konbentziturik nengoen etxe hark ez zuela bizilagunik edukiko, sarritan eta noiznahi handik igaro arren behin ere ez bainuen giza zantzurik antzeman.

Bizilagunik gabeko etxea hiriko auzo honetan! Gertaera harrigarria! Hala eta guztiz ere agian arrazoia soil eta xumea zeukan, hau da, jabeari bidaia luzeren batek astia hartu edo urruneko ondasunetan bizi izanik, barruti hau ez zuela ez inoren gain utzi nahi eta ezta alokatu nahiko ere, hartara ***ra itzultzean berehala bertan bizitzen jarri ahal izateko. Horixe zen nire ustea, eta nik neuk ere zergatik ez jakin arren etxe aurretik igarotzen nintzen lurrari erantsita bezala geratzen nintzen begira, gogoeta harrigarritan, hausnartzen baino areago sorginduta.

Badakizue denok, ene gatzaro zoriontsuko adiskide iaioak, badakizue aspaldidanik jokatu dudala aztiaren gisara eta mundu miresgarriko agerpen arraroren bat bizitzan sartu nahi izan zaidanero, arrazoi sendoz gezurtatzen jakin duzue! Tira, nahi hainbat sinu eta imintzio egin ezazue. Aitortu beharrean naiz sarritan sartu diodala ziria neure buruari, eta etxe hutsarekin ere hala gertatuko zela zirudiela, baina... Bukaeran dator lur jota utziko zaituzten ikasbidea, eta entzun arretaz! Has nadin!

Egun batez, itxurak pasealekuan batera eta bestera ibiltzea agintzen zuen orduan, hantxe nago etxe aurrean, ohi bezala hausnarketan begirada josita. Halako batean hot non

jabetzen naizen, zuzenean so egin gabe, norbait nire aldamenean jarri eta begira daukadala. P. kondea da, elkarrizketa frankotan nire gogaide agertua, eta berehala jabetzen naiz inondik ere etxearen misterioak bera ere atxiki duela. Are gehiago harritu nintzen, ordea, hiriko auzorik jendetsueneko etxe huts hark nigan izandako eragin bitxiari buruz hizketan hasi eta barreari eman zionean ironiatsu. Baina laster argitu zen dena.

P. kondea ni baino askoz urrunago iritsia zen, eta hainbat konbinazio eta oharren ostean etxe hartako buruzpidea ezagutu zuen; eta buruzpide haren sorburua hain istorio bitxian zegoen non idazlearen irudimen bizienak bakarrik koka dezakeen bizitza arruntean. Kondearen istorioa berritzea nuke zuzenena, oraindik argi eta garbi gordetzen baitut gogoan, baina gertatu zitzaidanagatik oraindik daukadan urduritasunak etenik gabe jarraitzea behartzen nau.

Gogotik harritu omen zen konde jauna, etxe hutsaren barruan zer eta gozogilearen konfitegia zegoela jakin zuenean, oparo jantzitako denda ondo-ondoan zuelarik. Horregatik zeuden murrutzaturik behe solairuko leihoak, labeen lekua hain zuzen ere, eta gozoak biltzeko lehen solairuko gela, berriz, eguzki eta eulien kontrako leiho-sare lodiz gordea.

Kondearen hitz haiek entzutean ur blaitua hartuta bezala geratu nintzen, edota poeten aurkako deabru gaiztoak ameslaria atximurkatzen duenean bezala, minbera eta oinazez.

Azalpen arrunt hura gorabehera, pasaeran beti neukan begiratu beharra etxe hutsera eta beti irteten ziren giltzape hartatik irudi bitxi ugari, nire burua hotzikara emez zeharkatzen zutenak. Ezin nuen etsi gozotegi, mazapan, karamelu, opil, fruta konfitatu eta besteren ideiarda. Burutapen konbinazio bitxi baten bidez solas ezti, lasagarriaren tankera eman nion guzti hari. Honela zioen, gutti gorabehera: Ez zaitez beldurtu, jauna! Umetxo goxo maitagarriak gara, baina laster trumoiak joko du pittin bat! Orduan pentsatu nuen berriro: Ni nauk ni ergela, arrunta dena miresgarri bihurtu nahian! Ez al didate lagunek arrazoiz bizkarreratzen azti porrokatua naizela?

Ustezko argitasun haren ondoren, jakina zegoen moduan, etxean ez zen inongo aldaketarik izan. Hala, nire begirada ohitu egin zen, eta arestiko irudi zoro haiek, murruetatik jalkiak ziruditenak, aienatu egin ziren pixkana. Kasualitateak iratzarriko zuen lozorroan zegoena.

Nahiz eta ahal nuen heinean eguneroko bizitzara itzuli nintzen, ez nion utzi etxe bakan hari begiz jotzeari; aise sinistuko duzue hori, neurezkoa baitut miresgarria den orori tinkotasun irmoz atxikitzea.